

4. ikasgaia: ARAU ZIBILEN APLIKAZIOA

Aurkibidea

1. Sarrera
2. Arauak interpretatzea
3. Analogia
4. Ekitatea

Arauak

- Kode Zibila, 1.7, 3., 4., 7. artikulua.

1. Sarrera

Arauak betetzeko ezartzen direla esatea ez da gauza berria. Kontuan izan behar da, edonola ere, arauak ezartzen direnean legegileak bi jarrera posible aurreikusten dituela hartzaileengan: aruari lotzekoa eta araua ez betetzekoa. Bigarren kasu horretarako, legeak berak zehapenak edo zigorrak ezartzen ditu. Zigor horiek askotarikoak dira, legeurratzeak bezain bariatuak. Guk, hemen, bi nagusi baino ez ditugu ikusiko: deuseztasuna eta saihestu nahi den araua aplikatzea.

Hori aztertu ostean, legearen aplikazioari egingo diogu erreferentzia. Izan ere, lege idatziak hitzak diren neurrian, beharrezkoa da beti arau horiek interpretatzea, eta, horrez gain, hutsuneren bat izanez gero, osatu ere egin behar dira arauak.

2. Arauak interpretatzea

Arauak hitzak direnez, kasu zehatz batean aplikatu ahal izateko, beharrezkoa da aurretik arau horien esanahia ulertzea, araua interpretatzea, alegia.

Legearen interpretatzaile garrantzitsuena epailea da (badira beste batzuk ere, legegilea bera, doktrina, notarioak, erregistratzaileak eta beste hainbat eragile). Legea interpretatzean, epaileak ez du askatasun osoz jokatzeko. Badira interpretazio-metodo jakin batzuk, Kodeak ezartzen dituenak, eta baita interpretazioaren emaitzari ezartzen zaizkion muga batzuk ere.

Esan beharra dago epaileak legea interpretatzen duenean ezin dituela bere balioak eta sinesmenak erabili, ordenamendu juridikoaren eta bereziki Konstituzioaren balioak hartu behar ditu elementu gidarizat.

Kode Zibilaren 3.1 artikulua arabera interpretatzeko baliabideak edo metodoak honako hauek dira:

- **Hitzez hitzezko interpretazioa.** “Arauk euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira” (Kode Zibilaren 3.1 artikulua). Lehenengo arau horren zioa da gehiegizko interpretazioak edo interpretazio behartuak eragozte. *In claris non fit interpretatio*, alegia, argi dagoenari ez zaio buelta gehiago eman behar.
- **Interpretazio sistematikoa.** Kodeak dio arauak bere “testuinguruan” interpretatu behar direla (3.1 artikulua). Izan ere, arauak ez dira inoiz bakarrik etortzen; lege batean beste arau batzuekin batera egoten dira.

Arauren esanahia ulertzeko, garrantzi handikoa izaten da, beraz, arau horren inguruko beste arauak aztertzea eta kontuan izatea. Askotan, ilun dagoen hitz baten esanahia testuinguruak berak argituko digu.

- **Interpretazio historikoa.** Kode Zibilak eskatzen du aipatu 3.1 artikuluan kontuan izan daitezela araua sortu zeneko egoera historikoa eta araua egiteko prozeduran erabilitako materialak (*iter legegilea* esaten zaio horri). Adibide bat jartzearen, Kode Zibilaren esanahia ulertzeko maiz jo izan da Napoleonen Kodera, zeinean oinarritzen baita neurri handi batean Kode Zibila.
- **Interpretazio soziologikoa.** Kodeak aipatu aurretik, jurisprudenziak onartu zuen lehenik interpretazio mota hau. Kodeak dio araua interpretatzean men egin behar zaiola “araua aplikatu behar den garaiko gizarte-errealitateari”. Interpretazio-arau honek legeen esanahia eguneratzeko balio izan du. Adibiderik garbiena Kodea bera da: duela ehun urte aldarrikatutako arauak gaur egun baliorik izango badu, behar-beharrezkoa da kasu askotan orduko hitzak egungo ideien argitan interpretatzea, beti ere muga batzuen barruan, arauaren oinarritzko esanahia eta asmoa gordez.

Interpretazio-arauei amaiera emateko esaten du Kodeak arauen interpretazioaren xede nagusia “legearen espirtua eta helburuak” argitzea dela. Legearen xede edo helburuaz ari dela, Kodeak arauen **interpretazio teleologikoa** egitea agintzen du, beraz. Kontu egin arau bat ulertzeko hainbat modu egonik interpretazio-elementu horren arabera ezingo dela aukeratu arauaren xedearen kontrako interpretaziorik.

Aurrekoarekin lotuz, lortutako emaitzen arabera, interpretazioa honelakoa izan daiteke: deklaratihoa edo adierazlea, zuzentzailea eta zabala edo murriztailea. Adierazlea izango da arauaren esanahia garbi doitzen duena; zuzentzailea, berriz, arauaren esanahia egokitzen saiatzen dena. Interpretazio soziologikoa, esate baterako, zuzentzailea izan ohi da. Interpretazio zuzentzailea izan daiteke, berebat, zabala edo murriztailea. Izenek adierazten duten moduan, zabala izango da arauak esaten duena baino gehiago esanarazten dion interpretazioa; murriztailea, berriz, esan gura duena baino esanahi mugatuagoa aitortzen diona.

3. Analogia

Aurreko ikasgaiari aipatu genuen *iura novit curia* delako printzipioa, zeinaren arabera epaileak erantzuna beti eman behar baitu; ezingo du lege-hutsunea dagoelako edo legea iluna delako auzia ebatzi gabe utzi. Hori agintzen du behintzat Kode Zibilaren 1.7 artikulua.

Agindu hori betetzeko, beharrezkoa izaten da batzuetan, arau idatzirik eta ohiturarik ez dagoenean, analogiara jotzea. Analogia hitzak antzekotasuna esan nahi du.

Kode Zibilaren 4.1 artikuluari jarraiki:

“Arauen aplikazio analogikoa bidezkoa izango da, arauok kasu zehatza arautu ez arren, horren antzeko beste bat arautzen dutenean, bi kasuon oinarria berbera dela”

Kodeak aipatzen duen analogia motari ***analogia legis*** deritzen. Bada, ordea, bigarrena, ***analogia iuris*** delakoa, printzipio orokorrekin erabiltzen dena. Lehenengoan, auziaren egitatezko suposamenduaren antzeko arau idatzia erabiltzen du epaileak auzia erabakitzeko; bigarrenean, berriz, antzeko araurik ere ezean, printzipio orokorretara jo beste irtenbiderik ez du. Azken horretan, epaileak, interpretazio sistematikoa erabiliz, arauaren printzipioak atera behar ditu, eta, horiek erabili ondoren, auziari erantzuna emateko.

Analogia metodo bat besterik ez da, iturri-sistemari jarraituz epaileak ordenamendua osatzeko baliabidea. Edonola ere, ohartu beharra dago *analogia legis* delakoak lege idatzia hedatu egiten duela; izan ere, lege-hutsunea dagoenean, zilegi baita ohitura nahiz printzipio orokorretara joan aurretik legean bertan arakatzea, antzeko arau baten bila. *Analogia iuris*, ordea, printzipio orokorren aplikaziorako teknika besterik ez da, eta, beraz, iturri-sisteman printzipioei dagokien lekua errespetatu egin behar du (nahiz eta printzipio orokorrek ordenamendua eratzeko ere balio duten).

Analogia erabili ahal izateko, ezinbestekoa da soluziorik gabeko kasuak eta egotzi nahi zaion arauak antzeko zioak (edo hobeto esanda, zio erkideak) izatea, hau da, egoera bien ***ratio legis*** delakoa berdina izatea. Egitatezko suposamenduek eta haiek ebazteko erabili nahi den arauaren zioek bateragarri izan behar dute. Zilegi izan behar du, beraz, auzi bati berez ez dagokion araua aplikatzea.

Kodeak, aipatutakoaz gain, beste muga bat ere ezartzen du, ordea, analogiaren erabileran: ezingo dira analogikoki aplikatu denbora jakin baterako aldarrikatutako legeak, ez eta arau penalak edo salbuespenezko egoeretan ezarriak ere (Kode Zibilaren 4.2 artikulua).

4. Ekitatea

Kode Zibilaren 3.2 artikulua arabera:

“Ekitatea balioestekoa izango da arauak aplikatzean; hala ere, auzitegiek emandako ebazpenen oinarri eskusiboa ekitatea izan dadin, legeak beren beregi ahalbidetu behar du hori”

Arauen aplikazio-sistema ixteko (eta epaileak duen egitekoari erantzun bat emateko) azken baliabidea eskaintzen du Kodeak: ekitatearena.

Aipatutako artikulua bi zeregin jartzen dizkio ekitateari:

Batetik, eta ordenamenduak berak horretarako aukera ematen duenean, auzia epaitu behar duenak arau-sistemaren ordezkari ekitatea erabili ahal izango du. Ekitatezko arbitraje gertatzen da hori (Ikus Arbitraje Legea).

Bestetik, ekitateak epailearen ebazpena Kodearen arabera doitzeko ere balio dezake. Izan ere, batzuetan gertatzen da, epaia arauen arabera emandakoa izanagatik ere, justiziaren edo ekitatearen kontrako izatea. Demagun, esate baterako, etxe batean hainbat pisuren jabeek terrazari itxitura egin diotela metro batzuk irabazteko; itxitura horiek baimenik gabe egin badira, komunitateak hura kentzera behar dezake jabea. Kasu honetan, itxitura horiek egin dituzten jabeetako bati bakarrik jarri zaio demanda. Besteenak, ordea, errespetatu egin ditu komunitateak. Epaileak pentsa dezake demandatutako jabeari itxitura kenaraziz gero erabakia ez dela ekitatezkoa izango. Suposamendu horretan, adibidez, egokia litzateke epaileak emaitza ekitatezko doitzea eta jabeari itxitura ez botaraztea, besteak ere botarazten ez dituzten bitartean.